

Arzallus, Estiballes, Lujanbio, Maia, Mendiluze eta Paia Zeanurin

12. orrialdea

Arratia-Nerbioi Txapelketako bost txapel Zeanuri eta Lemoara

Arratia-Nerbioi pelota eskolen arteko Txapelketan, hiru txapel lortu eban Zeanurik eta bi Lemoak. Zeanurik Aurreumetxoak, Umetxoak eta Umeak kategorietan irabazi eban; Lemoak, barriz, Gaztetxoak eta Gazteak kategorietan. Dima txapelkunorde izan zan Kadete mailan. 11. orrialdea



Apaolaza eta Gurrutxaga Kreditua antzezlanagaz Igorren

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

244

2016ko urtailaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

Errota aurkeztuko dabe Igorren hilaren 21ean

Urtailaren 21ean, arrastiko 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan Errota izeneko proiektuaren aurkezpena egingo dabe Arratiako hainbat eragilek. Izan be, Arratiako herri eta sektore desbardinatuko 20 bat lagun batu izan dira 2015ean zehar, garapen sozioekonomikoa dinamizauko dauan proiektu integral bat martxan ipinteko. Holan sortu da Errota.

Proiektuan garapenerako beharrezkoak diran lau ardatzak hartu dira kontuan; arlo pribadua, arlo publikoa, hezkuntza eta gizartea, hain zuzen be. Aurkezpenean proiektuaren nondik norakoak ezetutera emoteaz gainera, proiektura jente gehiago batzea espero dabe antolatzaileak, arratiarren parte hartzeagaz eta bertako sinergiaz baliatuz, eskualdea aldatu eta aurrera eroateko. 5. orrialdea



Noz euskaldundu zan Euskal Herriko sartaldea?



Elorriagako hilarriak.

Euskalduntze berantiarraren hipotesiaren arabera Euskal Herriko sartaldeko herrialdeak (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa) VI. mendera arte ez ziran euskaldundu. Hipotesiak hautsak harrotu eta oihartzun handia euki dau komunikabideetan. BEGITU, inguruko hainbat filologaz ipini da kontaktuan euren

erretia jasoteko. Hipotesia baino ez dala di-noe. Arratian, behintzat, "egoera etniko eta linguistikoan pentsetako" beste aztarna ez dagoz, Angel Larrea irakaslearen ustetan eta Euskal Herria ez dala inoiz homogeneoa izan hizkuntza aldetik azpimarratu dau Alvaro Rabellik. 8. eta 9. orrialdeak

DIMA

Gure Esku Dagok galdeketea gauzatuko dauan alkartea aurkeztu dau

Urtailaren 17an, Dimako Gure Esku Dago taldeak, aurtengo bagilaren 19ko herri galdeketea gauzatuko dauan alkartea aurkeztu eban herritarren aurrean. Alkartek prozesuak irauten dauan bitartean herriko plazan, eleizarako bidean, izango dau egoitzea. Sensibilidade desbardinatuko dimoztarrak osotuko dabe Alkarregaz Gure Esku Dago alkartea. 7. orrialdea



ARRATIA

Baserritar agroekologikoen erronkak

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkartekoak abenduan batu ziran 2015eko balantzea egin eta 2016ko erronkai aurre egiteko konpromisoa sendotuteko. Zapaturu azoka egingo dabe Igorren eta gitxi gorabehera hile birik behin, eta tartekatuta, Lemoan eta Diman be azokak egingo ditue. Horrezaz gainera eta beste gauza batzuen artean, TTIPa edo Merkataritza eta Inbersino Transatlantikoaren Itunaren inguruko hausnarketea eta eztabaidea sustatu gura dabe aurtan. 6. orrialdea



UBIDE

2016an, Hiri Antolamenturako Plan Orokorra abiatuko da

Ubideko 2016rako Udal kontuak ago batez onartu dira. Kontuok ia hirurehun mila euro mobiduko dabez. Diru partidarik handiena Hiri Antolamenturako Plan Orokorren erredakzinorako izango da. Plana hiru edo lau urtetan eginda egotea espero dau Josean Pagola Ubideko alkateak. Kaleko argiak eta suteetarako kasetak konponduteko be badago dirua. Aurrekontuak egiteko herri batzarra egin eben aurretik, diruagaz zer egingo dan aztertzeke. 5. orrialdea



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

JULIAN DE AJURIAGERRA: UBIDEZTAR BAT HOLLYWOOD-EN (II)

Hollywood-era saltoa

Hegoamerikan eta Espainian eukazan negozioak hazteko eta zabaltzeko gogoagaz, Hollywood-era jotzea ebati eban, hemen pelikulak produktoreak zuzenean negoziatzeko lortu ahal ebazan eta. Sasoi haretako zinema munduko izar asko ezetuteko aukera be izan eban Hollywood-en: Dorothy Dalton, Margarita Clarck eta Lilian Gish besteak beste.

1928an, beste aurrerapausu bat emon eban bere ibilbide profesionalean, *Una nueva y gloriosa nación* Hollywood-en egingo dan pelikula ekoiztera ausartu zanean. Film historikoa zan, Argentinako iraultzaren une garrantzitsuenak agertzen ebazana. *Una*

nueva y gloriosa nación aktore iparramerikarrak egin eban: Francis X. Bushman, Jacqueline Logan, Charels Mailes... Buenos Airesen estreinau zan eta kritika bikainak izan ebazan. Dana dala, gertaera batek pelikularen ibilbide komertzialean izugarritzko eragina izan eban: soinudun zinemaren agerpenak.

1936koa ez zan urte ona Julian de Ajuriarentzat, alde batetik, gerra zibilak eztanda egin eban eta ezin izan zan etorri Ubidea bisita egiten; bestetik, bere emaztearen heriotza gertatu zan. 1948an barriro ezkondu zan Buenos Airesen Maria Carmen Ford-egaz.

Pelikulak ekoizteaz eta bana-

tzeaz gainera *El Cinematógrafo. El Espejo del Mundo* liburua be idatzi eban Ajuriak. 1946an Buenos Aires-en argitaratu zan idazlan honetan zazpigarren artearen gorripamena egiten da eta sarreran, umaroko Ubide maiteari buruzko gogorapenak be batzean dira.

Julian de Ajuriak bere bizitzako azken uneak Alzheimer gaisotasunak jota bizi izan ebazan, eta 1965eko maiatzaren 17an, hiruurogeta hemeretzi urte eukazala, Buenos Airesen hil zan. Mari Carmen bere bigarren emazteak adierazo eban, "ia hiltzerian egoanean euskeraz egiten eban berba eta ez neutsan ezer ulertzen".



Jon Urutxurtu Julian de Ajuria Francis X. Bushman aktoreagaz.

TELEFONO INTERESGARRIAK

<p>Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 S.O.S. DEIAK 112</p> <p>Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Urtilaren 18tik 24ra Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11</p> <p>22:00etatik 09:00etara Sarasketa. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Urtilaren 25etik 31ra Goikoetxea. Dima. Ugarana 33 Tel.: 94 673 70 54</p> <p>22:00etatik 09:00etara Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Zezeilaren 1etik 7ra Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22</p> <p>22:00etatik 09:00etara Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano. Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.</p> <p>Urte osoan 22:00etatik 09:00etara Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.</p> <p>Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13</p>	<p>Dima: 94 631 56 30 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 45 03 61 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79</p> <p>Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79</p> <p>Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 Gorbeialde Irratia 94 631 52 90 Trenak Euskotren 902 543 210</p>	<p>Bizkaibus* 902 222 265 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.</p> <p>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.</p> <p>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p>	<p>Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Otxandiotik urteerak: Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Artea-Zeberio-Arriorriaga Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.</p> <p>Zeberio-Arriorriaga Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10</p>	<p>Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.</p> <p>Arriorriaga-Zeberio-Artea Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzea dan lanegun eta zapatuetan. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Arriorriaga-Zeberio Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.</p> <p>La Union* 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.</p> <p>Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioaorik ez dago.</p>
--	--	--	---	---



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefona: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topaguea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Irati Urien.
Maketazino: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.800 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística




Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Begoña gogoan

Begoñaren heriotzea dala-eta, Caritas Arratiak bat egiten dau etxe bako personakaz lan egiten daben erakundeak plazaratutako agiri eta konpromisoagaz.

Danok alkarregaz; administrazio, komunikabide, gizarte erakunde eta herritarrok konpromiso bateratu bat hartzean badogu, posible da persona guztiak etxea izatea. "Posible dalako. Inor ez etxe barik. Persona guztiak etxebizitza eukitea danon konpromisoa da".

Etxebizitza, persona guztiok maitasuna, laguntasuna eta segurtasuna topatzen dogun lekua da. Bizitzaren gainerako eremuetara sartzeako bidea emoten dau; horregaitik ez dogu ulertzen zelan egon daitekezan oraindino etxebizitza hutsak, persona asko kalean edo aterpeetan egonda: etxebizitza sozialak lortzeako aukerak zabaldu eta hobetzeko eskatzen dogu.

Erroldaren bidez zeure burua ikusi arazoten dozu, "persona

zara", baina udal askok ez dabez erroldan sartu gura etxe bakoak. Hata guzti be, erroldan egotea beharrezkoa da herritar gisa biziteko; gizarte zerbitzuak, osasun txartela eta abar lortzeako.

Ez dogu ulertzen zergaitik dagozan horrenbesteko zailtasunak gixieneko soldatak jasoteko, batez be zentro baten edo bestelako gizarte baliabide baten bazagoz. Ez badabe ezelango diru-sarrerarik, zelan egin aurre egoereari?

Parte-hartzea zerbaiten parte izatea da, balio bat da, ez lortu beharreko helburu bat.

Hartu-emon sozial positiboak euki gura doguz, bakardadea atzean ixten lagunduko deuskuezan loturak sortu. Inor ez eukitea, dana galduta izatea da. Argi daukagu: ez gara inor gainerako personak barik.

Posible da danok etxea izatea! Herritar guztion konpromisoa da! Inor ez etxe barik!

CARITAS ARRATIA

ERETXIA

Lan eskeintza gehiago, behin-behinekotasuna be bai

Igorreko Udalaren Enplegu Planaren barruan, Berharbide enplegu proiektua garatu zan. Proiektua 2013an hasi zan, lehenik, herriko enpresakaz landa lana eginaz, momentuan eukiezan enplegu beharrak ezetuteko asmoz. Harrezkero aurrerapausu nabarmenak emon dira kontratazino materian.

Programa hasi aurretik lana bilatzen eben personen profilen eta enpresen artean distantzia handia egoan, hau holan izanda, tailer desbardinak garatu genduzan bai kompetentzia profesionalen arloan eta baita prestakuntza ekintza espezifikokoak eginez be. Egun, Igorreko Udala Lanbideko entidade kolaboratzailea bihurtu da, prestakuntza eskeintzeko aukerea izanez.

Aldi berean, lan eskeintzen bilaketa eta kudeaketa zerbitzua be martxan ipini zan, eta igorretarrak inguruko eskeintzak jasotzean lehenak izatea eukan helburu. Egun, prospekzio zerbitzua egonkortuta dago eta Igorre inguruko lan eskeintzak bilatu eta Beharbiden inskribautako personai heldu arazoten jakiez.

2015ean Beharbidetako datu basean 209 persona egon dira inskribauta. Igorreko 16 enpresa desbardinaren 16 lan eskeintza jaso dira, eta astero 25 lan eskeintza bilatu eta erabiltzailei bialdu jakiez. Zerbitzu honek herriko langabetuak laguntza profesionala eskeintzeaz aparte, enpresak eta personen arteko alkartzete lanak egiten ditu.

Martxan dihardugun hiru urte honeetan pixkanaka lan eskeintzak areagotuz joan dirala ikusi dogu. Tamalez, neurri berean, kontratazinoen behin-behinekotasunak be gora egin dau. Lan kontratuak gero eta ezegonkorragoak dira eta soldatak txikiagoak, horregaitik oso garrantzitsua

NADIA MAESTRO

Aldalan

bihurtu da lana etxetik hur topatzea, honek kalidadea handitzea eta gastuak murriztea dakarrelako eta hori da Beharbidetik egiten saiatzen garana.

Esaterako, zemendian zehar egindako azken prestakuntzan, operazino administratibo komertzialen ingurukoan, lau kontratazino eta autoenplegu bi lortu dira. 15 personako taldetik sei bide laborean dagoz jada, eta besteak enpresetan praktikak egiten dabiz.

Prestakuntzeagaz jarraitutea funtsezkotzat daukagu, esaterako, datozen urteetan udal langileen artean aurreikusten diran jubilatzenoak dirala-eta, lanpostu honek beteteko udalean zabalduko diran lan-boltsatarako prestakuntza espezifikoa eskeintzeko asmoa daukagu.

Igorre, Euskal Herrian gertatzen danaren isla da. Enpresen eta personen beharren informazioa izatearen abantaila dogu, egunero eurekaz hartu-emonetan gogozalako. Beharbidetako programeagaz desenpleguari aurre egiteko asmoa daukagu, hurbiltasunez eta errealidadeari moldatuz. Estructura eta teknikak martxan dagoz eta emoitza egiaztatuz goaz denporea aurrera joan ahala.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Sorki



Aparteko baliorik ez daukan trapuari sorki (sórkie, agoskatuta) esaten deusagu. Batuaz, eskuzatar edo Iparragirrenen trapuzahar da. Gauza lohiak edo lohituak garbi-ikuzia egin ostean sikituteko erabilten dogu, esate baterako, harriko ontziak edo edozein automobil. Berba honek zentzu despektiboa be hartu leike, hurrengo mesprezuzko esaldi honetan ikusten dogun moduan: "Sorkiak baino gitxiago balio dozu!".

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Jips... zer?!

❗❗ *Hispster, ama, hipster esaten da*". Badakizue, gaur egungo moda edo urietako azpi-kultura bateri esaten jake holan. Izan be, bere burua hipstertzat daukan personeak itxura eta afizino bereziak ditu: mutilen kasuan, bizar luzea daroe (baina, hori bai, beti ondo zainduta), orrazkera modernoa (askotan koleta labur eta guzti) eta "vintage" estiloko erropea (*aspaldiko erropea, ama*). Gainera, musika eta zine alternatibo eta independente zaleak dira eta oso aktiboak sare sozialetan. Egia esan, gure Arratiako bailara honetan ez da bape be erreza hipsterrak ikustea kalean. Hasieran esan dodan moduan, uri handietako kontua izaten dalako batez be. Edozelan be, modak badatoz eta modak badoaz. Holan izaten da beti eta gauza natural eta beharrezkoa dala pentsetan dot. Ondo etorriak dira hipsterrak, gotikoak, raperoak, frikiak, heavyak, txoniak, moteroak edo

dana dalakoak. Ezpabere oso gizarzte aspergarria eta grisa izango litzateke hau. Dana dala, badagoz janzkera edo look batetik bestera atoan pasetan diran personak; egun batetik bestera itxura aldaketa erradikalak egiteko kapaz diranak. Esate baterako, atzo "trornista-metrosexuala" zana (*Emma Garcia-ren programea akorduan daukazu, ama? ba horixe, bekainak be depilau egiten dituen mrorrokoak*) gaur hipsters jantzita ikusiko dozu. Atzo goitik behera "Ternua" markak babesten eban ustezko mendizale-abertzalea, gaur gafapastadun-intelektual bihurtu jaku. Atzo pijo galanta zana, gaur Bongo Botrako musika taldearen jarraitzaile "hippijo" egin da (*hippyz kamouflau dan pijoak, zuk ulertzeko*). Eta holan beste hainbat adibide. Onartu daigun, gehienetan koherentzia eta gustu oso gitxigaz.

Esaera zaharrak esaten dauan moduan, "Haizeak nora, zapiak hara" (*zuk ama "a dónde va Vicente, a donde va la gente", esaten dozu*). Azken baten, izaera edo personalidade sendo baten faltan, ez larritu, hor egongo dira beti eskura Zara, Bershka eta konpania, behar dozun moztorra erosteko.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

1 Aintzina aintzina hasikoa da bururatu jatan gaia bata bestean ondoan bizi ta beti alkarren etsaia Frakazuriak eta Kokoak badakigu esanahia bada ordua lehengoa aiztuta gerturatzeko garaia.

2 Zeanurizarrak jente handia danak pekatu bakoak kristauak eta langile finak ta beterik boltsikoak domekan urten, amaitu ezkerro etxeko einbarrekoak, ta horregaitik beste guztiak geitzen doskue Kokoak.

Gaia jarrita: "Zeanuri eta Areatza"

3 Billaroztarran esanahi hori eztakit ondo zerba dan kanpoztar edo maketo diren fama eukiz urteetan zazpi bat ordu emongo dabez deskantsetan ohian lotan ta hamazazpi pasetan dabez pintxopotean tabernan.

4 Kilometro bi distantzia ta ze bizitza ezbardina eztau esan nahi bat faltso danik ta bestea barriz fina Billarok behadau Zeanin bakea ta Zeanik Billaron grina auzoko gara ta auzo izaten egin daigun ahalegina.

5 Askok esango dozue neska hau ontxe zoratu jaku nik herri biek maitatzen dodaz ta hori ezta pekatu Kokoak nazen arren gura dot Frakazurietan sartu oso osoan pentsetan dot ta txarto esanak parkatu.

6 Abendu hontan egin genduan alkarren norgehiagoka kirola aitzaki jarri ostean batu ginen Zeanin tropa arrasti ona giro hobea amaituarren mokoka baina herri biek merezi gendun altzatzea gora kopa.

BEGI TXINDORRA

Gizakion komunikazio bide eksklusiboa ei da barrea, ez da hizkuntzan oinarritzen eta horregaitik hizkuntza desbardinak dituenen artean komunikazioa ahalbidetzen dau. Komunikazioa.

Baina danok ez dogu gauza bardinakaz barre egiten eta gaur barre-garria iruditzen jakuna, bihar, beharbada ez. Eta distantzia bat behar danez gauza bateri barre egiteko, batzuk euren buruari barre egiteko gai diran bitartean, beste batzuk, arrotzari baino ez deustie barre egiten. Inkomunikazioa?

Berba egiten dogunean, isilik gagozanean edo lagunari barre eragiten deustagunean zer ete da nagusi, komunikazioa ala inkomunikazioa?



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 90
R.P.S. 21/06

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Etsauroa, 15
48330 LENDAKA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agutse

UBIDE

Hiri Antolamenturako Plan Orokorrerako izango da 2016ko diru partida nagusia



Ubide.

Erredakzioa

Ubideko Arnasaren 4 botoakaz eta EAJ-PNVko botoagaz, ago batez onartu ziran Ubiden 2016rako aurrekontuak. Kontuok 295.887 euroko sarrerak eta 292.290 euroko gastuak aurreikusten dabez. Diru partidarik handiena, 40.000 euro, Hiri Antolamenturako Plan Orokorraren erredakziorako izango da.

Plan Orokorra "hiru-lau urtetan" eginda egotea espero dau Josean Pagola Ubideko alkateak. Horixe izango da aurtengo inbersinorik handiena. Hori eta funtzinamenturako gastuak kenduta, ez da diru

askorik geratzen inbersinoetarako. Kaleko argiak konpondu edo barritzatuko dira, eta, beste gauza batzuen artean, makineriarako eta suteetarako kasetak konpondutako be egongo da dirua.

Herri batzarrak

Aurrekontuak egiteko, atzen urteotan, Ubiden herri batzar bat egin izan da. Bertan "urteko kontuak planteetan dira: diruak nondik datozan eta norantza urtego diran. Eta horren arabera, apur bat aztertzen da zer egingo dan. Gure kasuan ez dago margen handirik planteetako zer egin daiteken" dino alkateak.

ARRATIA

Arratiako Garapenerako proiektua aurkeztuko dabe Igorreko Kultur Etxean

Urtailaren 21ean, arrastiko 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan garapen sozioekonomikorako Errota izeneko proiektuaren aurkezpena egingo dabe eskualdeko hainbat eragilek.

Erredakzioa

Bertan, orain arte egindako lana aurkeztuko da, hemendik aurrera emongo diran pausuak azalduko dira eta proiektua zabaltzen eta arratiarren parte hartzea handitzen saiatuko dira. Errota proiektuak, bailarako instituzinoak, eragileak eta herritarrak inplikauz, tokiko garapena dauka helburu.

Atzen urteotan, langabezia eta prekaridadea handituz joan dira. Hori dala-eta, herritar askorentzat bizi baldintza duinak mantentutegia gero eta gaxagoa da, eta lana topatzeko, askotan, beste herrialde batzuetara mobidu behar izan dira arratiarrak, batez be gazteak. Egoera hau irauli guran, orain dala urtebete, Arratiako hainbat eragile batzean hasi ziran, Arratiako garapen sozioekonomikoa dinamizauko dauan proiektu integral bat martxan ipinteko asmoz. Arratiako herri eta sektore desbar-

dinetako 20 bat lagun batu izan dira 2015ean zehar. Holan, azken urteotako norabidea aldatuteko eta "danon artean eta danontzako Arratia sendo, jasangarri eta biziteko aproposagoa egiteko" Errota

proiektua sortu dabe. "Bakotxak bere arloan baina danok helburu bardinagaz lan egingo dogu" dinoe.

Orain arratiarren parte hartzeagaz, eta Arratian dagozan sinergiak baliatuz, sendotu gura dabe proiektua antolatzaileak, eskualdea aldatu eta aurrera eroateko.

Tokiko garapena

Proiektuan garapenerako beharrezkoak diran lau ardatzak hartu dira kontuan: arlo pribadua, arlo publikoa, hezkuntza, eta gizartea, hain zuzen be.

Inguruko proiektu arrakastatsuetatik ikasi, eta eskualdeko eragileen atxikimendua izaten hasi da proiektua. Hasierako fase an dago, eta ez dago definituta bere egitura juridikoa. Hori urtailaren 21etik aurrera egingo da.

Aurkezpenean herri eta sektore guztietako jentea egingo da.



LEMOA

Otxandion gertatutako lan istripua salatu dabe

Erredakzioa

Hiru egun lehenago Otxandion izandako lan istripua salatzeke, LABek, Ernaik eta Sortuk, deituta, urtailaren 11n konzentrazinoa egon zan Lemoan. Izan be, Maderas Kepa Atutxa S.L. enpresako langile lemoaztar bateri pinu bat jausi jakon gainera zugatzak mozten egoanean, eta hil egin zan. Euskal Herrian, 2016an lan istripuen ondorioz lehenengo hildakoa izan da Lemoakoa; 2015ean, 54 langile hil ziran Euskal Herrian.

LABek beharginaren familia, lankide eta lagunai alkartasuna adierazo ondoren, "gertaera honek ez dirala kasualidadearen edo zorte txarraren ondorioa, inposatzen jakun lan eredu prekarioaren ondorioa baino" salatu

dau. Izan be, ezegonkortasunean eta prekaridadean oinarritutako lan erritmo handiegiak eta lanaldi luzeak, eragina izaten dabe lan istripu gehienetan.

Sindikatuak holakoak barriro gertatu ez daitezkan burrukan jarraituko dauala esan eban.

Udalaren adierazpena

Lemoako Udal ordezkariak be egon ziran alkarretaratzean. Udalaren arabera, lan istripuen datuak onartezinak dira eta lan istripuetarako funtsezko errazoi bi dagoz. "Batetik patrioiak aparteko grina ipinten dabe mozkinak bilatzean, beste helburuen gainean" eta bestetik "Euskal Herrian Lan Harremanetarako berezko marko bat egiteko daukagun zailtasuna, bi estaduen inposaketari aurre eginez. Hau ezinbestekoa da

gure lan-harremanak antolatzeke, lan erreformak geratu arazoteko eta, aldi berean lan istripuak murrizteke".

Hori dala-eta, abenduaren 11ko Ez Ohizko Osoko Bilkuran ebatzi zan Otxandioko lan istripuan hildako Jose Saladino Orol Soutoren familiari solidaridadea adierazotea eta laguntza eskeintzea, gertatutakoa argitzeko bitartekoak ipintea eta mobilizazinoetan parte hartzea, besteak beste.



Lemoako konzentrazinoa.

Arratiako Eleizea gizarte mobilizazioaren alde

Osalanen ikerketearen zain eta persona eta enpresak juzgau barik, Arratiako Eleizak be lan istripuak "eliminatu daitekezan kausa jakinak dituela" eta gizarte mobilizazioa behar dala azaldu eban hileta eleizkizunaren ostean banandutako ohar baten. Beste gauza batzuen artean, lan eskubideak errespetatzea eta lan baldintzak hobetu beharra defendiduten ziran bertan.

DIMA

Euskerearen erabilera bultzatzeko tailerra

Erredakzioa

Euskerearen erabilera soziala bultzatzeko, Kataluniako Tallers per la Llengua sortu eta Euskaltzaleen Topaguneak moldatutako tailerra antolatu dabe Dimako eskolan. Zergaitik ez? izeneko tailer honetan, partaideak hizkuntzakaz eta euskereagaz daukien hartu-emonen gaineko hausnarketea egingo dabe, baita zelan eragiten dauan gure jokaerak euskerearen garapen eta erabileran. Tailerra urtailaren 27an izango da, arrastiko 17:00etan.

Diman euskerearen erabilera aztertu eta indartzeko proiektua ipini dabe abian. Zergaitik ez? Tailerragaz euskerearen erabilera soziala bultzatu gura dabe.

ARRATIA

**Igitie, baserritar konprometiduak
erronka handien aurrean****Igitie****Lau urtez lanean, sasi guztien gaintik**

Urtero bezala, pasa dan abenduan, Arratiako baserritar agroekologikoen alkarrean barne hausnarketa saioa antolatu genduan. 2015 urtearen

balantzea egin ostean, ondorio argi eta ilunagoak ateragenduzan.

Fruta-arbolen inausketa ikastaroa, BEGITUKO artikulua sorta, SAT sindikatu andaluziarreko kide baten berbaldia, Arratian kontsumo lokalaren inguruko panel interaktibo ibiltaria,

eskola-jantokien inguruko mahai-ingurua, bideo emonaldiak, Maskilu Zeberioako konserberan parte-hartzea, umeentzako zirku emonaldia, baserritarren 2016ko egutegia, Igorreko Euskera Plana berrestea... Gauza asko ondo egin dira, eta beste asko kili-kolo:

talde motorra nekatu samar dabil, gure egoera prekariedadetik hurbilegi dago beti eta partaideen inplikazioak gorabeherak jasaten ditu.

Hata guzti be, biziteko modu onaren bidean gagozala konbenziduta gagozanez etorkizuneko erronkai aurre egiteko konpromisoa erakutsi gura dogu, beti be jentarte zabala gure ondoan izango dogun bitartean.

Azokak, elikagai osasuntsuak eta herritik hur

Pasa dan urteko ildo beretik, aurten be hileko zenbait domeketan azoka handiak antolatu gurako geunkez Diman eta Lemoan, eta zapaturo Igorreko azokeagaz jarraitu. Gainera, beste herri batzuetan be egun seinaladuetan azoketan parte hartzeako prestutasuna agertu gura dogu. Behar bada, udal eta herri alkarrean aldetik antolakuntza mailan laguntza gehiago bota dogu faltan, batzuetan ez gara esfortzua neurtzen eta komunikazioa gauzatzen talentu handiz ibili. Behar bada, azokak herriaren dauan funtzio soziala eta ez soilik ekonomikoa ondo transmitidutea falta jaku.

2016rako azokak

Urtaileko Lemoako azoka bertan behera geratu da. 2016ko Igitie azokak datozen egun eta lekuetan izango dira: Igorren

zapaturo; zezeilaren 21ean Diman; aprilaren 17an Lemoan; maiatzaren 22an Diman; garrilaren 10ean Lemoan; urri lehenengoan 11n Diman; urri bigarrenaren 16an Lemoan, eta zemendiaren 20an Diman.

Baserritar barriak eta agroekologiaren bidea

Egin doguzan ekintza gehienak helburu argia daukie, agroekologiaren garrantzia gizarteratzea eta erispide ekologikoaren inguruko konzientziazioa zabaltzea. Badakigu herrikide batzuk orain dala giti baserritartu dirala, eta duda barik euren hurreratzeta eta bidea alkarregaz egitea da gure asmo sendoa. Eskua konfiantza osoz luzatzen deutsegu eta espero dogu euren aldetik erantzuna baikorra izatea.

TTIPa edo gizarte eredu autonomo eta subirua

Gure artean adostu dogun beste helburu nagusi bat TTIPa edo Merkataritza eta Inbersino Transatlantikoaren Itunaren inguruko hausnarkeeta eta eztabaidea sustatzea da, honetarako be ahalik eta kolektibo eta alkarrean kopuru zabalengaz bat egin gurako geunke.

Danok gara beharrezkoak mundu hobeago baten alde jarduteko eta posible dala sinesten dogu.

ARRATIA

Persona nagusientzako ekintzak eratuko ditu Gurutze Gorriak**Erredakzioa**

Arratiako Gurutze Gorriak, Persona Nagusien Planaren barruan, pensionista zein jubiladuen zahartzeta osasuntsua bultzatzeko asmoz, 2016 urtean ekintza batzuk eskeinitu ditu.

Hori dala-eta, ongizate fisikoa eta udalen arteko hartu-emona bultzatzeko helburuagaz, hilean behin mendi martxa bat antolatuko da. Lehenengo urtailaren 29an izango da eta "Antxinako Bilboko Burdinbidea" egingo dabe partaideak. Larrabetzuti Lezamara doa bidea eta 12 km. dira. Urtekera 08:40ean izango da eta Bizkaibusez joango dira partaideak Larrabetzura.

Teknologia barrien inguruko kontzeptu, prozesu eta balore desbardinak landuteko be antolatu dauz ikastaroak Arratiako Gurutze

Gorriak. Nagusiak, Interneten eta eskuko telefonoaren erabilera ikasteko aukerea izango dabe.

Zezeiletik maiatzera estimulazino kognitiboa landuko da ikastaroen bitartez, burulana sustatuteko asmoagaz.

Informazio gehiago gura izan ezkerreko Udaleko Jubiladuen Etxera edota Arratiako Gurutze Gorriko Igorreko bulegora jo daiteke.



ARRATIA

Arratia berdea ala gorria etorkizunean?**Erredakzioa**

2015eko udagoiena oso beroa izan da, negua bide beretik doa eta apenas ez dau euririk egin. Hego haizeak gogor jo dau, suteak egon dira eta mendia gorri ikusi dogu. Badirudi, berotze globalaren ondorioak ez dirala bakarrik Artikoa sentidu eta gurean be igartzen dirala.

Nazino Batuak antolatuta, 2015eko abenduan, Parisen, Aldaketa Klimatikoaren gaineko XXI. Nazinoarteko Batzarra egin eta bertan lehenengoz, akordio bat lortu zan berotegi efektua eragiten daben gasak murrizteko. Baina hartutako konpromisoak ez dira lotesleak eta ezartzeko mekanismorik be ez dago.

Uste dozu, beroketa globala 2°C baino gitiagokoa izango dala, akordioaren helburua izan zan moduan?

Erantzun honeetako bat emon daiteke www.begitu.org webgunean:

- Ez. Derrigortasun barik, behar beste herrialdek ez dabe behar beste neurriak hartuko.
- Bai. Beroketa globalak hazten jarraituko dau, baina akordio honerik esker, muga batzuen barruan, eta 2°C ko helburua lortuko da.

Musika joleak

Aurrekoan jakin gura izan genduan ea gure irakurleak musika tresnarik jotzen edo kantetan daben. Inkestari erantzun deutsien erdiak tresnaren bat jotzen dabela erantzun dabe. Beste erdiak, berriz, ez dabela ez musika tresnarik jotzen, ezta kantetan be erantzun dabe.



DIMA

Joxe Martin Bustinza "Tubi": "Beinke ez da zarratu ondino"

Beinke Dimako jaialdia amaituta, bederatzina mila euro jaso dabez Gure Señeak eta Gure Nahia Alkartasuna, gaixotasun arraroak daukienen alde behar egiten daben alkarteak. Gainerako dirua ekitaldiaren bideoa egiteko izango da. Baina Beinke ez da zarratu ondino. Kamiseten salmenteagaz eta beste bide batzuetatik diru gehiago jaso eta bananduko dabe dimoztarrak. Eta leitekena da, Beinke alkarte sortutea premina daukienai urtero lagunduteko.

Jose Martin Bustinza "Tubi", historia honetako protagonista nagusienetakoagaz egon da BEGITU. Tubik gaixotasun arraro bat hurretik bizi izan dau, familia barruan, eta bere ekimenez ipini zan martxan Beinke jaialdia. Modu batean edo bestean mila persona inguruk hartu eben parte xumea izan gura eban baina handia izan dan ekitaldian.

Erredakzioa

Zelan antolatu dozue ia mila lagun mobidu dauzan ekitaldi bat?

Hasi ginanean ez genduan pentsau holango ekitaldia izango zanik. Ekitaldi xume bat egiteko asmoa geunkan. Arratia mailakoa bai, baina ez genduan espero hainbeste jente etorriko zanik. Baina gauzaren bat galdetu edozeineri eta proiektuan sartzean zala ikusi genduan. Apurka-apurka dimensino handia hartu eban. Emozionantea izan zan, hainbeste jente hainbeste ideagaz.

Abestia aterateko, bideoa egiteko, afaria prestetako, harrikoa egiteko, garbikuzirako, edo mahaiak montetako, persona bat arduratzen zan eta berak topatzen eban lan-taldea behar hori aurrera aterateko.

Zelan sentidu zinan jaialdian?

Emozionau egin nintzan momentu askotan. Detaile txikiak be ikusten nebazenean eginda egoazala emozionau egiten nintzan, herritarrek egin daben beharra eskertzekoa da. Nik erronka bat neukan, marka baten ahalegina eta ez neban disfrutau askorik marka egin arte. Ekitaldian zeozer egin gura neban, neure aletoa ipini. Eta marka hori egiteko ahaleginetan, gauza asko ez dira ikusten. Baina aurretik eta ostean bai, disfrutau neban.

Lastoa Altxatzen gainditu beharreko marka be zeurea zan, ezta? 25 jasoaldi.

Bai. Hau marka aurten egin dot lehenengoz Gipuzkoako Txapelketan. Gipuzkoan egin nebaner

errekorra, pentsau neban "zergaitik ez dot egingo marka hori apurtu Diman?" Eta 25 jasoaldi egin arren, marka hobetu neban.

25 jasoaldi egin nebazan Gipuzkoan, baina minutu bitik aurrerantza, denporaz kanpo, beste jasoaldi bat egin daikezu eta hori kronometrau egiten da. Txapelketa baten, bardinketea badago, hurrengo jasoaldia egiten dauan lehenak irabazten dau. Nik Gipuzkoan 25 jasoaldi egin nebazan, baina 26.a ezin izan neban egin. Diman barriz, 25 jaso eta 26.a denporaz kanpo baina jaso egin neban. Jentearen apoioagaz, marka barria lortu neban.

Zenbat jente batu zan jaialdian?

Jaialdirako seirehundik gora tiket saldu ziran eta afarirako lauhun



Jose Martin Bustinza "Tubi".

inguru.

Alkarte biri laguntzeko zanez, ba alkarte horreetako jentea be etorri zan. Eta Arratiako jente asko, batez be Dimakoa.

Alkarteak jaso dabe dirua?

Bai. Baina ondino Beinke ez da zarratu, 19.000 euro jaso doguz eta alkarte bakotxari 9.000 euro emon deutseguz momentuz. Bestea itxi dogu eguneko dokumentala atera gura dogulako. Ekitaldia gogoratzeko. Ondino kamisetak eta sudaderak be salgai dagoz eta seguru asko diru gehiago batuko da.

Ondino ez daukagu argi Beinke alkarte sortuko dogun ala ez. Orain arte ez da alkarte izan, ekitaldia baino. Persona bi hasi ginan hor eta herri guztiak segidu dau. Orain ebatzi behar dogu ea hau hemen amaitzen dan ala Beinke

alkarte sortu eta lantzean behin ekitaldi batzuk antolatuko doguzan ala ez. Familiak urtero-urtero behar dabe laguntzea, gaixotasun arraroak daukiezanen familiak eta beste egoera berezi batzuetan dagozanak. Eta horreei laguntzeko ekitaldi desbardinak antolatuko geinkez.

Aurten jasotako dirua zertarako izango da?

Alkarte bi aukeratu genduzan, ze danai emon ezkeru, diru gitxi izango zan bakotxarentzat. Nire ustez alkarte bateri 9.000 euro emotea asko da, eta ez da asko. Ze diru horregaz ez da lortzean sendabiderik... baina behintzat diru horregaz lortzean badogu ume horreek komodo egotea, sufriduten ez egotea, eta euren gurasoai eta gertukoai laguntza apur bat emotea... hori asko da.

DIMA

Herriko plazan dago Alkarregaz Gure Esku Dago alkartearen egoitzea

Erredakzioa

Urtailaren 17an, Dimako Gure Esku Dago taldeak, aurtengo bagilaren 19ko herri galdeketea gauzatuko dauan alkarte aurkeztu eban herritarren aurrean.

Alkarregaz Gure esku Dago sortu barri dan alkarte, desbardin arteko topagune izateko borondateagaz jaio da. Hiru dira bere helburu nagusiak: herritarrai interesetan jakiezan gaien gaineko hausnarketak egitea; adostasunean eta akordioetan oinarrituz herritarren borondatea gauzatze-

ko herri galdeketak deitzea, eta partaidetzea sustatuko daben ekimenak bultzatzea.

Alkartekideen arabera, adin, genero eta sensibilitate desbardinak dimoztarrez osotutako alkarte honen bidez, erabakitze eskubidea gauzatzeko prozesuaren oinarri soziala osotu gura da, orain arteko sarea egituratu eta horretarako, herritar guztiak dagoz parte hartzera konbidautu. Ateak zabalik dagoz sortutako batzordeetan lan egiteko (ekintzak antolatzeko, galdera adosteko, komunikazioa garatzeko...). "Erronka

barri honeri indarrak batuta eta alkarregaz heldu gura jako, prozesuaren azken urratsa dan herri galdeketaz gainera, hilabete honeetan zehar garatuko dan prozesua bera be izango dalako aberasgarria herritar guztiarentzat. Desbardin arteko adostasunak ehunduz, herria osotuten daben artean hartuko dira erabaki guztiak, guztion artean erabakiten dan horregaz aurrera eginez" adierazo dabe Dimako Gure Esku Dagoko taldekoak.

Lehenengo eta behin, herritarren erabakiteko borondatea



jasoko dauan sinadura bilketea egin behar da. Zeregin horretan lagunduteko, eta gerora be herritarren erreferentzia-puntu izateko, herriko plazan (eleizarako bidean) prozesuak irauten dauan bitartean Alkarregaz Gure Esku Dago alkarte

sortu barriaren egoitzea egokitu da. Goierri, Ispaster eta beste hainbat lekutako herritarrek batera, orain dala hiru urte hasitako "erabakitze eskubidearen aroaren protagonista bihurtuko dira dimoztarrak be 2016an".

EUSKEREA

Euskaldunak Kantabriaren seme-alabak

Euskalduntze berantiarraren hipotesiaren arabera Euskal Herriko sartaldeko herrialdeak (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa) VI. mendera arte ez ziran euskaldundu. Hipotesiak gure bazterreko hautsak harrotu eta oihartzun handia euki dau komunikabideetan.

Erredakzioa

"Vasconiako historia bat" EITB-n emondako dokumentalak aspaldion polemika handi samarra eragin dau gure artean. Izan be, bertan nahiko zorrotz baieztatu zan Euskal Herriko sartaldea ez zala gitxienez VI. gizaldira arte euskaldundu. Beti hipotesi horren arabera, Iparraldetik frankoak eragindako presinoa dala medio, euskaldunak ziran akitaniarrak eta baskoiak sortaldetik sartalderantza oldeetan mobidu ei ziran gure bazterretan bestelako hizkuntzak eta jatorriak eukazan herriak euskaldunduz, edota sartaldegora bultzatuz. Hipotesi hau funtsetako Burdin Aroko zein erromatar sasoiko mendeetako epigrafia, onomastika, toponimia eta aztarna arkeologiko barriak berrinterpretatu dira, eta emoitza lez, euskaldun herrien aztarnak barik herri zeltiarren eta ondorengo erromatarrenak baino ez dira ageri.

Bada, baieztapen hori, hain zorrotz botateagaitik edo, ez zan inguru euskalzaleetan oharkabean pasau, areago, polemikoa eragin eban. BEGITUKO orrialdeetan bertan Gontzal Mendibilek preguntau eban ea euskal hizkuntzalari guztiak bat etozan baieztapen horregaz, bitartean, El Pais ("Euskaldunizar a la fuerza", 2015eko urri lehenengoaren 24a) moduko hedabideetan, gaurko euskalduntzearen kontra joteko okasinoa ez zan galdu. Horregaitik, bertatik preguntea zabaldu zan Arratiako hizkuntzalarien artean ea Arratian nahiko aztarna ba ete egoan K. o. VI. mendearen aurretik beste egoera linguistiko eta kultural baten pentsau ahal izateko. Kontua hizkuntzalaritza-fikzino hutsa dala uste dabenakaz batera, zuhurtzia baino ez dogu jaso, zuhurtzia bakarrik hipotesi kontuetan mobiduten garalako.

Izan be, euskal hizkuntzalaritza ez da hipotesi barria, daborduko XIX. mendeko euskalari batzuek idea hori defendiduten eban, orduantxe euskaldunok Kantabriaren seme-alabak ginan. Esan leiteke euskerearen historia eta jatorria azalduetako hiru dirala gaur egun daukaguzan hipotesi

El Pais ("Euskaldunizar a la fuerza", 2015eko urri lehenengoaren 24a) moduko hedabideetan, gaurko euskalduntzearen kontra joteko okasinoa ez zan galdu

Lemoako Elorriagako aztarnategiak kultura "indigena" batez eta erromanizazioaren zantzuez berba egiten deusku. Beharbada beste egoera linguistiko eta kultural batez berba egiten deusku Arratiako historia zaharrerako



Elorriagako hilariak (benetakoak Bilboko museo arkeologikoan dagoz). I. eta III. mendeen arteko, irudi "indigenakaz" eta epigrafe latindarrakaz.

nagusiak. Lehenengoak Euskal Herriko sartaldeko herri zaharrak (autrigoiak, karistiarrak, bardularriak eta beroniarrak) herri euskaldunak dirala dinosku. Horregaz, ñabardurak ñabardura, Koldo Mitxelena, Caro Baroja eta Enrike Knör modukoak bat etozan.

Bigarrena, Joaquin Gorrotxategi moduko hizkuntzalariek defendiduten dabena, euskalduntze berantiarrarena hain zuzen. Eta hirugarren bat (Iñaki Camino) lehenengo hipotesia guztiz ezeztatu barik VI. gizaldi horretan Euskal Herrian izan ziran jazoera histo-

rikoak euskerearen historiako berebizikoak izan zirala dinoana. Gainera, hiru hipotesiok ez dabe zalantzan ipinten gaur Euskal Herria dan eremu zaharrean bestelako hizkuntzak (zeltiera, iberiera, latina...) berba egiten ziranik gure historiaren tarte horretan.



Elorriaga.

Holan berba egin deusku Goi Erdi Aroko onomastika eta toponimiari buruzko zirriborro baten lanean dabilen Angel Larrea irakasleak:

"Arratian ez dagoz aztarna asko; ez egoera baten ezta beste egoera etniko eta linguistikoan pentsetako be. Bakarrenetariko bat Lemoako Elorriaga auzoko hilarriak. Hori, nire ustez, ez da nahikoa teoria edo hipotesi bat adierazoteko. Arratia mailan esan gura dot. Zergaitik? Oso gitxi landu dalako eta landu barik dagoalako era serioan eta sistematikoan. Gai sano konplejua da: linguistika, historia, toponimia, genetika, arkeologia, antropologia... diziplinak hartuta, egunen baten egin beharko da, ekipo eta talde interdiziplinarrean, ikerlan hori".

Antzeko zuhurtiaz be egin deusku berba Alvaro Rabelli irakasleak. Zeanurikoak behin baino gehiagotan emon behar izan dau "Euskerearen historia" ikasgaia Eusko Ikaskuntzaren programetan:

"Hizkuntza baten historia alor eta ikuspegi askotatik jorratu daiteke, besteak beste dana dalako hizkuntza horrek ze garapen euki dauan beste hizkuntza batzuen hartu-emonetan, hizkuntza guztiak denporan jazotako bilakaerearen emoitzea dira eta. Euskerea be ez da salbuespena, lehenengo okerra pentseta da orain dala bi mila urteko euskera hori artez-artezean, ezelango aldaketa barik, ailegau jakula gaur arte. Oraingo euskerea, beraz, hizkuntza zeltiarrakaz, latinagaz, arabiereagaz, erromantze latindarrakaz, eta are ingelesagaz

be eukitako hartu-emon luzeen frutua da. Danak lorratz handiagoo edo txikiagoo itxi dabe euskeran, eta ixten segiduko dabe, aurrerantzean beste batzuek beharbada, euskereak iraungo badau. Egoera horretatik, gainera, beste ondorio bat atera geinke; hau da, Euskal Herria deritxagun hori ez da historian sekula eremu homogoneoa hizkuntza eta kulturen aldetik izan, guztiz kontrakoo, gaur be ez dan moduan. Alde horretatik be, batzuek esatea gogoko daben lez, euskera Europako hizkuntzarik zaharrena dala esaterik ez dago, ez dago inongo hizkuntzaz hori esaterik. Berbarakoo, gaur-gaurkoz behintzat, latinak, hizkuntza indoeuroparra danak, euskereak baino lekukotasun zaharragoak daukaz. Lekukotasunak dira hizkuntza baten antxinitatea frogatzeko modu bakarra, enparaukoak hipotesiak eta, kasurik txarreanean, fikzinoak dira. Beste kontu bat da euskerearen jatorriari eta antxinateari emondako larregizko garrantzia. Ez da barria, aspaldiko kontua da, gure txikitasunaren adierazgarria baino ez da izan. Hasikeran euskereari prestigioa emoteko baliatu zan, gaur, tamalez, ikuspegi demagogikoak baino ez dauz ekarri, kolore eta alde guztietakoak ekarri be. Hemen sano errez pasetan gara kobazuloetako jente ha euskalduna zala esatetik euskerea inoiz ez dala gure hizkuntzea izan esatera. Bada, tira, nire ustez ikuspegi biak okerrak dira, eta kaltegarriak. Edozelan be, euskalduntze beran-



tiarraren gaineko hipotesiagaz ez nator guztiz bat, gauza asko azaldu eta kontrastau barik ixten dauz eta. Hipotesia da, ondo funtsatua egon

leiteke, baina oraingo hipotesia baino ez da, bestelakoen artean kontuan hartu behar doguna. Gainera, zer ardura deusku Arratia

VI. mendean euskaldundu bazan? Neuri benetan ardura deustana da ea orain euskalduna dan ala ez".

Matrikula garaia

Urtailaren 25etik zezeilaren 5era.
Emon izena Arratiako ikastetxeetan.

Onabiazko ikastetxeak
Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



MENDIA

Erredakzioa

Nanga Parbat (8.126 m.) neguan igoteko erronka hartu eta abenduan abiatu eben espedizioa Alex Txikonek, Daniele Nardik eta Ali Sadparak. Han, Bielecki eta Czech-en espedizioagaz alkarlanean hasi ziran sokak ipinten. BEGITU zarratuterakoan, Alex Txikonek eta Sadpara"k, 6.000 metrotan dagoan Kinshofer hormaren oinarriainokoa ekipauta eukien.

Bigarren urtea da Alex Txikon Nanga Parbat neguan igoten saiatzen dala. Nanga Parbat mendiko tontorra ez dau inork lortu zapaldutea neguan. Aurten erronkeari Kinshofer bidetik ekin deutso Txikonen espedizioak, baina igaz baino izoztuago ei dago mendia eta, igazko eskarmentua izan arren, ez da erreza goa izango tontorra egitea.

Txikon Nanga Parbat-eko tontorrerako bidean



Alex Txikon.

ZIKLO-KROSA

Julen Zuberok arazo mekanikoak izan ebazan Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Urtailaren 8, 9 eta 10ean, Torrelavegan (Kantabria) jokatu zan Espainiako Ziklo-kros Txapelketa. Arratiarrak bertan egon ziran, baina ez eben podium-ik lortu.

Zirkuitu polita da Torrelavegako, Isaac Suarez ziklo-krosleriak diseinutakoa, baina arratiarrak ez ziran lehenengo postuetan sartu, denporaldian zehar askotan sartu diran arren.

Julen Zuberok Elite mailan,

sano lasterketa ona egin baeban be, azkenengo bueltan arazo mekanikoak izan ebazan eta 16. postuagaz konformau behar izan zan. Master 30 kategorian, Mikel Epalzak, ezin izan eban lasterketea amaitu.

Lehenengo hamarren artean Arratiako ziklo-krosleri bi egon ziran: Manu Quintanilla Master 40 kategorian eta Mikel Nuñez Master 30ean. Quintanillak 7. egin eban eta Nuñezek, barriz, bederatzigarren.



Julen Zubero.

Berdea marroian erabili

Erosketetarako Poltsa Konpostagarriak

Abendutik aurrera, Arratiako dendetan, erosketetarakopoltsa konpostagarriak emongo ditue dohainik.



Kolore berdeari esker ezagutuko dituzu, eta edukiontzi marroian erabili ahal izango dira.

Edukiontzi marroirako izena emon daben personek **landare-hondakinak** botateko erabili ahal izango ditue, eta oraindino izena emon ez dabenek Udalera edo Mankomunitatera jo ahal izango dabe, zerbitzuan izena

emoteko; bertan, beharrezko material guztia emongo jake, **DOHAINIK:** ontzia, poltsa konpostagarriak, edukiontzi marroia zabaltzeko giltza eta bertan itxi leitekezan hondakinei buruzko azalpen-liburuxka.

INFORMAZINO GEHIAGO: **94 631 17 17**



AZKOREA

Atutxa eta Mugertza Binakako Urrezko Aizkorako finalera

Erredakzioa

Hilaren 10ean Urrestillan Arria V.a eta Mikel Larrañaga menpean hartu ebazan Aitzol Atutxak eta Ugaitz Mugertzak. Garaipen honegaz euren multzoko lehen postua segurtatu dabe jokaturako bi norgehiagokak irabazi egin dabez eta. Arria V.ak eta Larrañagak multzoko bigarren postua izango

dabe jokoan Ruben Saralegiren eta Jon Rekondoren aurka.

Urrestillan ez zan emozinorik egon Atutxa eta Mugertza jaun eta jabe izan ziralako. Jokaturako sei probetatik bostetan irabazi eben, eta azkeneko lanera minutu bat baino gehiagogaz heldu ziran. Finala zezeilaren 28an jokaturako dabe Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan.



Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza.

PELOTEA

Zeanuriko pelota eskoleak hiru txapel, Lemoakoak bi

Arratia-Nerbioi pelota eskolen Txapelketan, lau kategoriatan sailkatu zan finalerako Zeanuriko eskolea eta horreetako hiru partidu irabazi ebazan, txapelak lortuz.

Erredakzinoa

Txikienen kategorietan izan zan, Aurreumetxoak, Umetxoak, Umeak eta Gaztetxoak kategorietan jokatu, eta hiru lehenengoetan irabazi eban Zeanurik. Gaztetxoak kategorian, Lemoagaz neurtu zan eta Lemoarentzat izan zan txapela. Izan be, gazteak dira Lemoako eskolako alderik sendoena momentu honetan. Lemoako pelota eskoleak txapel bi lortu ebazan Gaztetxoak eta Gazteak kategorietan.

Arratia-Nerbioi eskola arteko txapelketan, Arratiako bost pelota eskolak hartu eban parte: Areatza, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanurik, hain zuzen. Txapelketan, Arratia eta Nerbioi eskualde bietako 10 pelota eskolak hartzean

dabe parte, 500 pelotaritik gora. Aurtengo finala Arrigorriagan jokatu zan urtailaren 16an. Goizean, Kadetek, Gazteak eta Nagusiak neurtu ziran. Arrastian, eskola guztien desfilea egin ondoren, Aurreumetxo, Umetxo, Ume eta Gaztetxoan txandea izan zan.

Partiduak

Dimak Kadete mailako finala jokatu eban Usansoloren kontra, baina ez eban txapela lortu. Partidua irabazten hasi zan (1-7) eta aurretik joan zan ia partidu osoan 14na bardindu arte, baina azkenean Usansolo nagusitu zan (15-22).

Gazteak kategorian Lemoak lortu eban txapela. Lemoako eskolako bikotea J. Bengoetxea Lemoako eskolakoak eta A. Lejarza

Igorrekoak osotu eban. Denporaldi honetan Lejarza Lemoan dago Igorrekoak itxita. Finalean Zornotzaren kontra neurtu ziran eta 22-21 irabazi eban, tensinoa azken momentura arte mantenduz.

Arrastian txikien txandea izan zan eta, esandako moduan, Zeanuriko eskoleak izan eban protagonismoa, arrastiko lau partiduak jokatu.

Aurreumetxoak kategorian, Lemoak eta Zeanurik jokatu eban txapela, 18 tantotara. Lemoa 16, Zeanuri 18 izan zan azken emoitzea.

Hurrengo partiduak, Umetxoak, Umeak eta Gazteak, 10 tantotako zati bi eta despenpaterako 5 tantotako beste zati baten jokatu ziran. Sistema honen helburua, pelotari guztiak atzelari zein aurrelari jokaturako aukerea izatea da. Lehenengo zatian aurrelari dabizanak, atzelari izango dira bigarren zatian.

Umetxoak kategorian, Zeanuri Zornotzaren kontra neurtu zan 9-10, 10-7 eta 5-3 irabaziz. Umeak kategorian Zeanuri Arrigorriagari nagusitu jakon 10-2, 1-10 eta 5-3. Gaztetxoak kategorian, barriz, Lemoa izan zan irabazlea, Zeanuriri 6-10 eta 7-10 irabazi ostean.



Emoitzak			
Aurreumetxoak			
Lemoa	16		
Zeanuri	18		
Umetxoak			
Zeanuri	9	10	5
Zornotza	10	7	3
Umeak			
Zeanuri	10	1	5
Arriorriaga	2	10	3
Gaztetxoak			
Zeanuri	6	7	
Lemoa	10	10	
Kadetek			
Dima	15		
Usansolo	22		
Gazteak			
Lemoa	22		
Zornotza	21		
Nagusiak			
Zornotza	13		
Arrigorriaga	22		

PELOTEA

"Dimeko Gabonetako II. Txapelketea" buruan

Pelotea eta frontoia bizirik lehenengo edizinoan.

Irati Urien

Urtea hasteagaz batera joan da "Dimeko Gabonetako I. Txapelketea". Finalerdiak abenduaren 26an eta urtailaren 2an izan ostean, finalak hilaren 5ean jokatu ziran. Jardunaldiotan nesken eskuzko zein pala partiduak euren presentzia euki ebela azpimarratu gura dabe antolatzaileak, "txapelketea aurrera atarateaz gainera, nesken frontoiko parte hartzea be bultzatu gura izan dogu". Txumuluxueta pelota kluba sano pozik gelditu da txapelketeak euki dauan erantzunagaz; euren helburuen artean giro ederrean jentea frontoira hurreratutea, eta neska zein mutil izan pelotarako afizinoa biztutea ziran, bai eta lortu be.

Atzenengoa izango ez dan edizino honek, lehenengo txapeldun eta azpitxapeldunak itxi ditu. Kadete mailan estu ibili ziran bi bikoteak baina atzenean Zornotzako Atutxa eta Usansoloko Ruizek 22-20 irabazi eutsien Durangoko Albear eta Lazkano zornotzarrari.

Gazteak mailari jagokonean, maila oneko partidu sano fisikoa jokatu eban lau pelotariak. Gorritz

Lur Ziarrusta eta Mikel Aurrekoetxea, urdinez Kimetz Zapiko eta Peio Artola; Aurrekoetxea erasoan fin ibili bazan be Zapikok defensa ona daukala erakutsi eban. Lurrek Artolari ondo eutsi eutsan baina atzenengo tantuetan bajatu eta partidua hor joan jakien gorriai, 22-19 emoitzea.

Amaituteko Nagusi mailakoen txandea izan zan arrastiko hirugarren partiduan. Ekhi Ziarrusta eta Asier Aspuru gorritz, Elezkano eta Hernandez urdinen aurka. Atzeko koadroetan Aspuru nahiko errez nagusitu jakon Ibon Hernandezeri, eta horrerri esker aurrean tantuak amaituteko pelota asko gelditu jakozan Ekhirri. 22-15 gorrien alde, espero zana baino partidu laburragoa atzen hau.

Antolatzaileak beste behin eskerrak emon gura izan deutseez Dimako Udalari eta lagundu daben danai. "Zelan ez partiduak ikusten frontoira hurreratu diranai be eskerrik asko, egiten eban hoztagaz, merituz latza". 2016. urte honetan "Dimeko Gabonetako II. Txapelketea" egongo dala argi itxi gura izan dabe antolatzaileak.



SOKATIREA

Sokatirea Zeberion

Erredakzinoa

Urtailaren 16an Zeberioiko Zubialdeko frontoian, 2016ko Euskadiko Goma Gainerako Txapelketako saioa egon zan. Andrazkoetan, Badaiotzek irabazi dau Euskadiko txapela 540 kilokoetan.

Hiru talde egon ziran lehian andrazkoetan. Munduko txapelduna izandako Badaiotz taldea zan horreetako bat. Zeberion, Badaiotzek Ibarri irabazi eutsan eta Gaztedi taldeagaz bardindu egin eban, holan aurre-

neko postuan jari ziran. Hurrengo egunean, Bermeon izan eban txapelketako azken tiraldia eta txapelketea irabazi eban. Gasteizkoa izan arren, Arratiagaz lotura handia dauka Badaiotzek. Izan be, bertara joan izan dira beti tiralari arratiarrak, Lemoako Ruth Linaza, barbarako, eta askotan ikusi izan doguz Arratian, kirola bultzatzeko edo alkartasun ekimenetan.

Gizonezkoetan 11 talde egon dira lehian Euskadiko Txapelketan 640 kilotakoan, tartean Arrigorriagako Sokarri taldea. Bosgarren postuan amaitu eban kategoria horretan. Sokarrin Galder Gombantes tiralari zeberioztarra dago. Zeberiokoa 600 kilotako txapelketako I. jardunaldia izan zan eta Sokarrik irabazi egin eban.

BERTSOLARITZEA

**Sei bertsolari handi
Zeanurin hilaren 24an**

Atzenengo hamaika urteetan legez, momentuko bertsolaririk handienetakoak batuko ditu urtailaren 24an, 18:00etan, Zeanuriko Bertso Eskoleak Udalaren laguntzeagaz antolatuten dauan Zeanuriko bertso-saioak.

Erredakzioa

Ametz Arzallus, Arkaitz Estiballes, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Fredi Paia izango dira bertan. Gai jartzaila beharretan, Jabi Olibares "Orue" izango da.

Atzen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala jokatu

eben hiru bertsolari egongo dira Zeanurin: Arzallus txapelduna, Lujanbio txapeldunordea eta Mendiluze. Arkaitz Estiballes, Bizkaiko Txapelduna izan zan 2010 eta 2012an, eta horreekaz batera, Jon Maia eta Aitor Mendiluze, Txapelketa Nagusiko finalera lau bider ailegau diranak. Fredi Paia Bizkaiko Txapela lortu eban 2014an.



Estiballes eta Paia Areatzako Gaztetxean.

ANTZERKIA

**Kreditua komedia
Igorreko Lasarte Aretoan**

Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxaga.

Erredakzioa

Jordi Galceran-en *Kreditua* ize-neko komedia taularatuko dau Ttanttaka Teatroak urtailaren 30ean, 20:00etan Igorreko Lasarte Aretoan. Fernando Bernuesen zuzendaritzapean, Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxagak antzeztuko dabe gaurkotasun handiko eta umorezko obra hau.

Joseba Apaolazak banku sukur-

sal bateko zuzendariaren papela egiten dau obra honetan eta Zuhaitz Gurrutxagak bezeroarena. Zuzendariak kreditua ukatu egingo deutso bezeroari eta hortik abiatuta gauzak korapilatzen hasiko dira.

Aitziber Garmendiak euskaratu eban Jordi Galceran idazle katalanarren *Kreditua*. Obra hau katalanez, galizieraz eta gaztelaniaz be antzeztu da.

ZINEA

**Ocho apellidos catalanes
filmaren saio
barria hilaren
22an Igorren****Erredakzioa**

Ocho apellidos catalanes filmak Igorren arrakasta handia izan eban eta Kultur Etxeko Lasarte Aretoa txiki geratu zan urtailaren 9an eta 10ean; egun horreetan aretoa bete eta jentea kanpoan geratu zan. Hori dala eta, Udalak beste saio bat egitea ebatzi dau eta urtailaren 22an, barikuz, arrastiko zortziretan, barriro be Lasarte Aretoan *Ocho apellidos catalanes* ikusteko aukerea egingo da.



publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, BTP, B
Lehendakari Agirre 31
Telefonoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxeautoeskola.net

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

ARA OTZ
Landegian O Jabetzen!

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY TABERNA
•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak
arratiko.zekorak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

MUSIKEA

Punk talde bi Karabien

Erredakzioa

Galdakaoko Ortuondo Gaztetxe-koakaz alkarlanean, Harriketarrak Gazte Asanbladak kontzertuak antolatu ditu urtailaren 23rako. Inedituak Galdakao Punk eta Habemus Papam taldeak Karabie Gaztetxean joko dabe 22:30etik aurrera.

Inguruko punk musikeagaz gozatuteko aukerea izango da Karabie Gaztetxean hilaren 23an. Inedituak punk rock taldeak Galdakaoko punk musikea ekarriko dau Lemoara. Euren abestiak eta Rip, Reincidentes edo La Polla taldeen bersinoak egiten dabez galdakaoztarrak. Beñat Etxeba-

riak (bateria), Egoitz Bilbaok (bajua eta koroak) eta Iskander Morenok (gitarra eta abotsa) osotuten dabe taldea.

Habemus Papam punk-oi taldea barriz, Amurriotik dator. Talde honek disko bi ditu dagoeneko kalean, *Ekintza zuzena* eta *Hortzak erakutsi*.

Blogak helbide barria

Harriketarrak Gazte Asanbladak bere blogaren helbidea aldatu dau. Orain <http://www.harriketarrakblog.wordpress.com> helbidean topau daiteke ekintzen informazioa: egitarauak, kronikak, argazkiak eta abar.



ERAKUSKETEAK

Argazki erakusketea Igorren



Erakusketearen kartela.

Erredakzioa

Hilaren 28ra arte, Igorreko erakusketa gelan, Koldo Badillo argazkilaria *Kaosetik labirintora* izenpeko erakusketea dago ikusgai. Urteetan zehar Euskal Herriko basoetan ateratako erretratatuak batzean dira bertan.

Argazki honek egileak kaosaren edertasuna eta lasaitasuna

bilatzen dau. Baso irudietan, begiradea galdu egiten da, noraezean dabil. Hortik labirintoaren idea. Argazkiok, 200 mm. ko teleobjektibo batez dagoz aterata, distantzia bat sortu eta "lehen erexitik haragoko zoezer bilatuz".

Badillok gonbitea luzatzen deuto bisitariari baso irudi horreetan murgildu eta irudimenari kasu egiteko.

LEHIAKETEAK

Zu bai zu, talentua batzean

Erredakzioa

Zu bai zu Talentu Lehiaketan parte hartu gura izatekotan, izena urtailaren 30a baino lehenago emon behar da Igorreko Kultur Etxean. Hiru kategoria dagoz: umeak, gazteak eta helduak; eta irabazleen artean 500 euro bonoetan eta 1.000 euro esku dirutan bananduko dira.

Antolatzaileen ustez talentu handia dago Arratian eta talentu desbardinak dituenak eszenaleku baten batuta, sano ikuskizun ugari eta interesgarria egin daiteke. Horregaitik, jantzan, abesten, komedia, akrobaziak edo magia egiten, musika jotzen, graffitiak, malabareak edo monologoak egiten dakiezan arratiarrak, aukerea eukiko dabe publiko aurrean erakusteko euren abileziak, trebetasunak eta gaitasunak. Talentua, finean!



DUNBA

"Harrotxu" euskeraz egiteko laguna

Lemoako ikasleak

Harrotxu, urdin koloreko estralurtarra, gure laguna da. Bere kamisetan gorrian "Harro bizi euskeraz"

ipintzen dau; euskeraz berba egitea asko gustetan jakolako.

Harrotxu sortu zan, gure artean euskeraz berba egin dagigun. "Harro", bildur eta lotsa barik



Lemoako eskolako umeak Harrotxugaz.



Eskolako jantokiko hezitzaileak Harrotxugaz.

geure hizkuntzan berba egiteko. Jente guztiagaz saiatu behar gara euskeraz berba egiten, eta harro sentidu behar gara horrexegaitik.

Lemoako eskolan, DBHko ikas-

leak egindako marrazkien artean bat aukeratu genduan Harrotxu irudikatzen.

Harrotxu, eskolan eta herrian egiten diran ekintzetan, euske-

rearen erabilpena indartzeko pertsonajea da. Beti dago prest laguntzeko.

Harrotxugaz tratua egin genduan, berak opariak ekarri eusku-zan guk euskeraz berba egitearen truke.

Berari eskerrak emoteko bertso polit bat abestu geuntsan:

Euskera planetatik hegazkin batean gure lagun urdina dator poz betean Harrotxuk esaten du berbaz entzutean "Harro bizi euskeraz" guztion artean.



AGENDEA

URTAILAK 18

IGORRE

Koldo Badilloren *Kaostetik labirintora* argazki erakusketea Kultur Etxean hilaren 28ra arte.

LEMOA

Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik dago. Ipuinak urtailaren 22ra arte entregatu ahal dira liburutegian.

Hilaren 22ra arte, Gazteentzako Europako biajeen izena emoteko epea zabalik. Udaleko Gizartegintza Zerbitzuan. 1998 eta 1995 urteen bitartean jaiotako gazteentzat.

URTAILAK 19

DIMA

19:30ean, Igitie alkarteak antolatuta, Ahoztar Zelaletaren *Kutxabank, el saqueo de Euskal Herria* liburuen aurkezpena Gazteetxean.

URTAILAK 20

AREATZA

19:30ean, Lamino Mendi Taldeagaz federatzea. Mendia, BTT, snow eta eski modalitateak. Areatzako Udaletxeko 3. solairuan.

URTAILAK 21

DIMA

Hilaren 29ra arte, ikastaroetan matrikulatzeko epea (Yoga, Pilates, Eskulanak, Hipopresiboa eta Zumba).

IGORRE

19:30ean Arratiaren Garapenerako proiektuaren aurkezpena. Kultur Etxeko Lasarte Aretxean.

19:30ean txalaparta tailerra Kiñu Gazteetxean.

ZEANURI

Sukaldaritza ikastaroaren izena emoteko azken eguna. Udaletxean.

URTAILAK 22

DIMA

12:00etan, San Bizente jaiak Artaunen.



Nik Khaos-en Eztanda diskoaren aurkezpena Kiñu Gazteetxean

Urtailaren 30ean, Nik Khaos taldeak bere bigarren diskoa, *Eztanda*, aurkeztuko dau Kiñu Gazteetxean, 22:30etik aurrera. Disko honetan, Dimako metal taldeak kritika gogorra egiten deutso gaur egungo gizarteari.

Ondoren Raust! rock talde barriak joko dau. Talde honetan Karmelo Usategi igorretarra dago, taldeko abotsa da.

Arrigorriagako Boogie Riders-ek, blues rock hirukoteak osotuko dau jaialdiko programea. Ez da sarrerarik ordaindu behar.

IGORRE

20:00etan, zinea *Ocho apellidos catalanes*. Lasarte Aretxean.

ZEANURI

19:00etatik 21:30era, Patxi Rincon-en eskutik, sukaldaritza ikastaroa hasiko da.

URTAILAK 23

IGORRE

Igitie-koen Azokea.

22:00etan, zinea *Deuda de honor*.

Lasarte Aretxean.

LEMOA

Karabiko erreketaren urteurrena. 10:30ean Gaztetxetik Karabiera. Bertan txitxiburduntzia eta Tiragoma Lehiaketea.

22:30ean, kontzertuak: Inedituak, Galdakao Punk eta Habemus Papam Karabie Gazteetxean.

URTAILAK 24

AREATZA

Parketxeak antolatuta, Saioa Larreagaz zeramika tailerra.

IGORRE

17:00etan, zinea *Capitan Diente de Sable y el tesoro de Lama Rama*; 19:30ean, zinea *Deuda de honor*. Lasarte Aretxean.

ZEANURI

18:00etan bertso saioa. Amets Arzallus, Arkaitz Estiballes, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Fredi Paia. Forntoian.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *Entre tinieblas*. Plazako ermitan.

URTAILAK 27

DIMA

17:00etan, Euskarearen erabilera soziala sustatzeko tailerra eskoletan.

URTAILAK 28

IGORRE

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Igorreko Kultur Etxean.

URTAILAK 29

IGORRE

08:40ean Gurutze Gorriak antolatutako mendi martxea "Antxinako Bilboko Burdinbidea".

20:00etan, *Mujeres saliendo del cuento* antzezlanaren IKEn.

URTAILAK 30

AREATZA

20:00etan, Animal Blues-en kontzertua. The Quiet Corner-en.

IGORRE

Igitie-koen Azokea.

Zu bai zu Talentu Lehiaketan izena emoteko azken eguna. Igorreko Kultur Etxean. Sariak: 1000 euro eskudirutan eta 500 euro bonoetan.

20:00etan, antzerkia. Ttanttaka Teatroak *Kreditua* antzeztuko dau. Lasarte Aretxean.

URTAILAK 31

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Yoko eta lagunak*; 19:30ean zinea *Paulina*. Lasarte Aretxean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Bogaboo-a eta hasaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

DANERIK

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrenaren! Asteazken ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautak bazagoz, animatu eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra.

Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima.

Telefonoa 635 207 386.

IRAKASLE BILA

Ume batez ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Deuda de honor* filmarako.

Axular Kultur Elkartea (Igorre)
Bego Tabera (Artea)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Kreditua* antzezlanerako.

Iban Gortazar (Areatza)
Aitor Esteban (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Joskileak egiten dau. Birritan, zeden, zerren. 2.- Gela. Bokala. 3.- Galioa. Oihu luze eta zoli. 4.- Oxigenoa. Elaia. 5.- Matematikan, logaritmoaren laburdura. Jatorri atzizkia. 6.- Zoratu. Bat erromatar. 7.- Bizkaiko ibaia. Amerizioa. 8.- Letra bat. Ardazlari. 9.- Harridura adierazoten dau. Azkar.

GOITIK BEHERA

1.- Zaindari. Begitu. 2.- Masa. Guzti. Erdiko bokala. 3.- Selenioa. Erara. 4.- Goibel. Pena handia. 5.- Ugin. Edabe garbi. 6.- Konsonantea. Urtaro bat. Gasteizko kanpo herria. 7.- Gitxi falta. Arima-kanpai.



Topau olinpikoak ez diran zazpi kirolen izenak.

F	R	O	N	T	E	N	I	K	A
P	A	T	I	N	A	J	E	A	L
E	O	R	O	K	H	A	S	R	E
T	A	L	O	G	I	R	T	A	B
A	S	T	O	P	R	I	N	T	I
N	O	B	E	A	Z	T	X	E	N
K	R	U	N	P	E	A	G	A	M
A	D	E	R	E	L	K	O	P	E
S	A	S	K	L	A	O	R	K	A
A	B	A	L	O	B	S	I	E	B
L	O	K	A	T	I	R	A	B	O
T	X	O	K	A	B	E	R	A	X
O	S	T	I	K	O	L	A	B	E
K	O	K	O	B	E	T	A	S	O
E	R	R	U	J	I	L	A	T	A

AKI MI KO

Ait ziber



umaan moda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Telefonoa: 94 673 61 25

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain direnez
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozulu@arratia.net

begitu
arratia ubide zeberio

ez da debalde



"Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean,
begirada osoan begituten beti". Gontzal Mendibil